

IDAZKARI NAGUSIAREN 15/2018 TXOSTENA

Gaia: Busturialdeko Ur Partzuergoa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan integratzeko aukera

Jurdana Uriarte Lejarraga, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, azaroaren 14ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 174.1. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik, hurrengo TXOSTENA egin dut:

1. Aurrekariak

Lehena.-Idazkariari 2018ko uztailaren 16an informazioa eskatu zaio Busturialdeko Ur Partzuergoa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan integratzeko aukeraz.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

Partzuergoen inguruko araudia nahiko mugatua izan da, baina azken aldiak lege ugari onartu izan dira, besteak beste, oinarrizkoa den 2015ko urriaren 1eko 40/2015 Sektorre Publikoko Araubide Juridikoaren Legea. Lege horren 119. artikuluan partzuergoen araubide juridikoa zehazten da, hain zuzen ere, guri dagokigunean hurrengoak:

- Urriaren 1eko 40/2015 Sektorre Publikoko Araubide Juridikoaren Legea
- Martxoaren 30eko 3/1995 Bizkaiko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen Foru Araua
- 2018ko apirilaren 27an BAOn argitaratutako Busturialdeko Ur partzuergoko estatutuak
- 2015eko uztailaren 1eko Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko estatutuak

Lege, Foru Arau eta estatutuaren partzuergoa uzteko, desegiteko, likidatzeko eta azkentzeko eskubidearen araubideari buruz aurreikusita ez dagoen guztian

- Kode zibila (sozietate zibilari buruz aurreikusita dagoena)

- Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onartzen duena

Osagarri moduan:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena
- Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea
- Apirilaren 18ko 781/1986 Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege xedapenen Testu Bategina

2.2. Azterketa juridikoa

Lehena.- Busturialdeko Ur Partzuergoaren estatutuen 44.4 artikulua ezarpeneko beharrezkoa ote den partzuergoaren aurretiazko desegite akordioa

40/2015 legearen 127.1 artikulua esaten da partzuergoa desegiteak haren likidazioa eta azkentzea dakarrela.

Estatutuen 43. artikulua partzuergoa desegiteko zioak azaltzen dira eta, ondoren, 44. artikulua jardunbidea jasotzen da. Jardunbidearen barruan, Busturialdeko Ur Partzuergoko estatutuen 44.4 artikulua dio, 40/2015 legearen 127.5 artikuluekin bat etorritik, erabaki ahal izango dela gehiengo osoarekin aktibo eta pasibo guztiak sektore publikoko beste entitate juridikoki egoki bati lagatzea, eta aktibo eta pasibo guztiak lagatzeak berekin ekarriko duela partzuergo lagatzailea azkentzea likidaziorik gabe.

Artikulu horiek hitzez hitz interpretatuz, uler daiteke lehenengo partzuergoa desegitearen akordioa hartu beharko dela estatutuen 43. artikuluan zehaztutako arrazoen batengatik eta akordio hori hartu ostean erabakitzen bada gehiengo osoz aktibo eta pasibo guztiak sektore publikoko beste entitate juridikoki egoki bati lagatzea, jarduerari eusteko eta azkenduko den partzuergoaren xedea betetzeko, berarekin ekarriko duela partzuergo lagatzailearen azkentzea likidaziorik egin gabe.

Bigarrena.- Behin partzuergoa deseginda posible ote den beraz Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan integratzea

40/2015eko legearen 118 artikulua dio partzuergoak administrazio publiko batzuek edo sektore publiko instituzionaleko entitate batzuek sortzen dituztela beren artean edo entitate pribatuen parte-hartzearekin, guztien interes komunekoa jarduerak egiteko beren eskumenen eremuan.

Hala ere, toki erakunde bati adskribitutako partzuergoen kasuan kontraesana dago LRSALaren ondorioz sortutako 7/1985eko 9.3. Xedapen gehigarriarekin, xedapen horrek dio: *Los organismos, entidades, sociedades, consorcios, fundaciones, unidades y demás entes que estén adscritos, vinculados o sean dependientes, a efectos del Sistema Europeo de Cuentas, a cualquiera de las Entidades Locales del artículo 3.1 de esta Ley o de sus organismos autónomos, no podrán constituir, participar en la constitución ni adquirir nuevos entes de cualquier tipología, independientemente de su clasificación sectorial en términos de contabilidad nacional.*

Xedapen horren arabera, partzuergoak ezin direla egon eratuta beste sektore publiko lokaleko erakundeez eta ezin dutela parte hartu bestelako partzuergoetan.

Beste alde batetik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren estatutuetan ez da aurreikusten partzuergoak integratzeko aukerarik, izan ere, 41.artikuluari udalerriri gehiago barne-sartzeko aukera baino ez du aurreikusten.

Beraz, azaldutakoagatik Busturialdeko ur partzuergoa ezingo litzateke Bilbao Bizkaia ur partzuergoan barne-sartu eta ez dirudi egoki denik Busturialdeko ur partzuergoa desegitea 43.4. artzoiagatik Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan integratzeko, ez baitago aukerarik Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan integratzeko partzuergo moduan, bai, ostera, udalerriri moduan.

Hirugarrena.- Egokia den juridikoki Partzuergoaren aktibo eta pasibo guztien lagapena egitea sektore publikoko beste erakunde bati

40/2015 legearen 127.5 artikulua aurreikusten du aukera hori dionean: *Partzuergo-entitateek erabaki ahalko dute, estatutuetan xedatutako gehiengoaren bidez, edo, estatutuetan halakorik aurreikusten ez bada, aho batez, aktibo eta pasibo guztiak lagatzea sektore publikoko beste entitate juridikoki egoki bati, jarduerari eusteko eta azkenduko den partzuergoaren xedeak betetzeko.*

Beraz, espresuki jasotzen da aukera hori oinarritzkoa den 40/2015 legean.

Laugarrena.- Busturialdeko Ur Partzuergoko aktibo eta pasibo guztien lagapenak Udalek BUPren erabilerarako lagatutako ondasunei eragiten dieten

Partzuergoko aktiboan egoteak suposatzen du partzuergoaren ondasunak direla eta partzuergora transmititu zirela ondasunok. Beraz, partzuergoaren gehiengo osoak erabakitzen badu, aktibo eta pasibo guztiak sektore publikoko beste entitate juridikoki egoki bati lagatzea, jarduerari eusteko eta azkenduko den partzuergoaren xedeak betetzeko, Bermeoko Udalak ezingo luke ukatu lagatzea aktiboan dauden ondasun guztiak (iraganean bereak zirenak barne).

Desberdina litzateke aktiboan ez baleude ondasun horiek eta Bermeoko Udalak ondasunon erabileraren lagapen hutsa egin izan balu partzuergoa dirauen bitarterako. Kasu horretan, ondasunon jabetza udalarena izango litzateke eta ondasun horiek ez lirateke izango partzuergoaren aktiboaren parte.

Dena den, ondasunok aktiboaren parte badira eta Bermeoko Udalak berreskuratu nahiko balitu, Busturialdeko Ur Partzuergotik borondatez banatu liteke partzuergoa desegin aurretik edo desegiten den bitartean. Izan ere, 40. artikuluan esaten da Partzuergoa osotzen duten edozein Udalerri hura borondatez uzteko honako hauek beharko dira: a) Interesaturik dagoen Udalbatzarreko osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoaz erabakitzea. b) Interesaturik dagoen udalerrria Partzuergoari egin beharreko ekarpenak ordainduta izatea. c) Banaketatik erator daitezten gastu guztiak ordaintzea, baita Partzuergoak sortutako zorkaririk dagokiona ere. d) Batzar-Nagusiko botoa emateko eskubidea duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz kitapen-kontua onestea. Batzar-Nagusiak hartutako erabakian horretarako baldintzak jarriko dira.

Estatutuen artikulua horretan esaten da udalerrri bat edo batzuk banatzeak ez duela Partzuergoa kitapena egitera behartuko, izapide hori indarrik gabe geratu daitekeelarik, beraren desegite egunera arte, harako egunera arte aipatu Udalerriek Partzuergoaren ondasunen kitapenean dagokien zati alikuotan parte hartuko dutela. Hala ere, gertatzen diren inguruabarrak kontutan hartuz, banatutako udalerriei bere partaidetzaren

ordainketa osorik edo zati batetan aurreratu ahal izango die. Beraien zerbitzuetarako bakarrik ezarritako elementu edo instalazioak esleituko zaie.

Hortaz, udalak eskatu lezake berari dagokion zati alikuota emateko, non bere sasoian transmititutako ondasunak berreskuratzeko aukera izan lezakeen (baldin eta alikuotarekin bat badatoz).

Bostgarrena.- Udalek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko integrazioa negoziatzeko izango luketen egoeraz

Partzuergoa desegiten bada, udalak oinarrizko zerbitzua emateko betebeharra izango luke. Zerbitzua emateko udalak bide ugari dauzka, adibidez: zerbitzua zuzenean ematea, zerbitzua udalekotezko espedientea bideratuz (beti ere baliabide pertsonal, material eta ekonomiko nahikoak baditu), edo erakunde instrumentalak erabiltzea, besteak beste, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa. Azken kasu horretan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergo barne-sartzeko espedientea bideratu beharko litzateke eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko estatutuetan ezarritako hurrengo baldintzak bete:

a) Interesaturik dagoen Udalbatzak aldez aurretik bertako Osoko Bilkurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabakia hartu ondoren eskatzea.

b) Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak onestea. Barne-sartzeko

erabakian barne-sartzeko jarritako baldintza orokorrak zein bereziak adierazi beharko dira.

c) Udalerria barne-sartzeko erabakia, Udalbatzarra osotzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak hartuta. Erabaki horretan Partzuergoren Estatutuak onetsi eta onartuko dira, baita eta honek barne-sartzeko jarri dituen baldintzak.

d) Partzuergoan udalerri gehiagoren barne-sartzea Euskal Herriko eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialetan argitaratuko dira.

Horretaz gain, barne-sartzean ekarpenak eta ondoren betebeharrak ekonomikoak egoteko aukera aurreikusi behar da. Izan ere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko estatutuaren 33. artikulua araberak: *Partzuergoan barne sartutako Erakundearen ekonomia-ekarpenak Batzar Nagusiak ezarritako eran eta epeetan egingo dira. Ekarpenek derrigorrezko eta lehentasunezko ordainketatzat joko dira ondorio guztietarako.*

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe eta Busturialdeko Ur Partzuergoko idazkariaren irizpidearen kalterik gabe. Hori horrela, Alkatetzak egoki deritzona erabakiko dau.

Bermeon, 2018ko uztailaren 27an

Idazkaria,

Jurdana Uriarte Lejarraga

Jasota, 2018-07-27

Alkatea,

Idurre Bideguren Gabantxo